

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

220/2015 Foru Dekretua, urriaren 26koa, onartzen duena finkatzea zein baldintza bete behar duten Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 14ko 21/2015 Foru Dekretuaren 3. artikuluan zehazten diren kirol jarduerak 2015eko ekitaldian lehentasunezko mezenasgo jardueratzat har daitezen

Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearenak eta mezenasgorako zerga pizgarrienak, arau esparrua ezartzen du sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jardueren eta programen finantzaketan izango duen parte hartzeari buruz.

12/2004 Foru Arau horren 29. artikuluko 1. idatz zatian xedatutakoa betetzeko, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 14ko 21/2015 Foru Dekretuak (ALHAO, 48. zk., 2015eko apirilaren 22koa) lehentasunezko mezenasgo jarduerak finkatu zituen 2015 ekitaldirako, eta horien artean daude 3. artikuluan zehaztutako kirol jarduerak, baldin eta, agindu horretan bertan eskatutako eskakizunnez gain, "Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak ezartzen dituen baldintzak" betetzen badira. Helburu hori du honako Foru Dekretuak.

2015eko irailaren 23ko ALHAO 112. zenbakian argitaratu zen Euskara, Kultura eta Kirolaren zuzendariaren irailaren 14ko 1791/2015 ebazpena, onartu zuenak jendaurrean jartzea Foru Aginduaren Aurreproiektua non finkatzen ziren zein baldintza bete behar dituzten Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 14ko 21/2015 Foru Dekretuaren 3. Artikuluan zehazten diren kirol jarduerak 2015eko ekitaldian lehentasunezko mezenasgo jardueratzat har daitezen.

Alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, Zerga Araudiaren Zerbitzuaren txosten bat baino ez da jaso. Txosten horrek foru aginduan sartu beharreko alderdi batzuk proposatzen ditu, eta horiek kontuan izan dira idazketa berri honetan.

Baldintza hauek finkatzeko, bigarren artikuluan bereizi egin dira, alde batetik, kirol klubetako emakumezkoen talde edo sekzioen jarduerak eta, bestetik, gainerako kirol jarduerak, azken hauen artean kirol lehiaketak sartuta.

Beste alde batetik, egokia iritzi zaio 21/2015 Foru Dekretuak erabiltzen dituen esaera batzuen esangura zehazteari. Horrela, foru agindu honen ondorioetarako, emakumeak protagonista dituzten kirol jarduerak partaide gehienak emakumeak dituztenak direla ulertzen da. Era berean, kirol jarduerak emakumezkoen parte hartzea bultzatzen dutela ulertuko da, beren deialdietan eta publizitatean dei berezia eta adierazgarria egiten bada emakumezkoen parte har dezaten. Azkenik, genero estereotipoen haustura bultzatzeko edo emakumezkoak ikusgai egin eta beraiei gizarte aitortzea emateko baldintza betetzen dela ulertuko da jarduera horiek gizonezkoen parte hartzearekin loturik egon izan diren eremuetan emakumeen parte hartzea bultzatzen badute.

Gainerakoan, bigarren artikuluko lehenengo idatz zatian jasotako eskakizuna, alegia, Arabako Lurralde Historikoko kirol klubetako emakumezkoen talde edo sekzioek lehiaketa ofizialetan parte hartu behar dutela, honako arrazoi honetan oinarritzen da: mezenasgo ekintza federazio bakoitzak denboraldiaren hasieran onartzen duen egutegi ofizialeko jardueretara bideratu behar dela, horiek garrantzi txikiagoko jardueretatik bereizita, hala nola torneo berezietatik, adiskidantzako neurketetatik, etab.

Halaber, bigarren artikuluko horretako bigarren idatz zatian jarritako baldintza, alegia, idatz zati horren gai diren jarduerak Arabako Lurralde Historikoko oihartzun esanguratsua izan behar dutela, honako arrazoi honetan oinarritzen da: komeni dela mezenasgoa apirilaren 14ko 21/2015

Foru Dekretuaren 3. artikulua lortu nahi dituen helburuak ongien betetzen dituzten jardueren sustapenera bideratzea.

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 9ko 14/2004 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoak, 4. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta kontuan hartuta, bate-tik, balizko interesatuen izaera mugagabea eta heterogeneoa eta, bestetik, komenigarria dela 2015eko ekitaldi honetan ahalik eta gehien luzatzea 21/2015 Foru Dekretuaren 3 eta 4. artiku-luetan aurreikusitako kirol arloko lehentasunezko mezenasgo jarduerak onartzeko eskaerak aurkezteko epea, jendaurrean jarriko da zazpi egunez herritarrei entzunaldia emanaz, iragarkia ALHAOn argitaratu ostean.

Martxoaren 30eko Diputatuen Kontseiluaren 40/1999 Foru Dekretuak, Arabako Foru Adminis-trazioaren Aholku Batzordea osatu eta haren arautegi organikoa onartzen duenak, 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz, batzorde horren txostena ez da nahitaezkoa.

Espedientean dauden txostenak ikusi dira, eta horien artean daude Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 9ko 14/2004 Foru Dekretuaren 2. artikuluan nahitaezko gisa eskatzen direnak.

Horregatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 40.11 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

Xedatzen dut

Lehenengoa. Onartzea apirilaren 14ko 21/2015 Foru Dekretuan zehazten diren kirol jardue-rek bete behar dituzten baldintzak finkatzea 2015eko ekitaldian, lehentasunezko mezenasgo jardueratzat har daitezen (I. eranskina)

Bigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 26a

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua
IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

I. Eranskina

1. Artikulua. Xedea

Arautegi honen helburua da xedatzea zein baldintza bete behar duten Diputatuen Kontsei-luaren apirilaren 14ko 21/2015 Foru Dekretuaren 3. artikuluan zehazten diren kirol jarduerak, 2015eko ekitaldian lehentasunezko mezenasgo jardueratzat har daitezen.

2. Artikulua. Jarduera mota bakoitzerako baldintza espezifikokoak

1. Arabako Lurralde Historikoko kirol klubetako emakumezkoen talde edo atalen jarduerak.

Lehentasunezkotzat jo ahal izango dira Arabako Lurralde Historikoko kirol klubetako emaku-mezkoen talde edo atalen lehiatzeko jarduerak, baldin eta lurralde, autonomia, estatu edo nazioarte eremuko lehiaketa ofizialetan parte hartzen badute.

2. Bestelako kirol jarduerak.

Aurreko atalean adierazitakoez gain, lehentasunezkotzat joko dira honako baldintza haue-takoren bat biltzen duten kirol jarduerak, kirol lehiaketak barne:

a) Emakumezkoena izatea.

Kirol jarduerak emakumezkoenak direla ulertuko da, emakumeek baino ezin dutenean parte hartu edo gehienbat emakumeek parte hartzen dutenean.

b) Emakumeen parte hartzea bultzatzea.

Kirol jarduerak emakumezkoen parte hartzea bultzatzen dutela ulertuko da, euren deialdietan eta publizitatean dei berezia eta adierazgarria egiten bada emakumezkoek parte har dezaten.

Horrelakoetan, gainera, eskatuko da dena delako jarduerak genero estereotipoak apurtzera bultzatzea edo emakumeak ikustaraztea eta horiek gizartean aintzatetsiak izatea sustatzea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da jarduera horiek gizonezkoen parte hartzeakin lotuta egon izan diren eremuetan emakumeen parte hartzea bultzatzen badute .

Dena dela, aurreko atalak aipatzen dituen jarduerak Arabako Lurralde Historikoan egingo dira eta lurraldean eragin esanguratsua izango dute.

3. Artikulua. Baldintza orokorrak

Pertsona fisiko edo juridikoek 2015eko ekitaldian euren jarduerak lehentasunezkoztat jotzeko interesa badute, 2015eko abenduaren 1a baino lehen egin beharko dute eskaera Euskara, Kultura eta Kirol Sailean.

Eskaerarekin batera lehentasunezkoztat jotzea nahi den jardueraren proiektua aurkeztuko da. Proiektuan dena delako kirol klub edo jardueraren diru sarreraren eta gastuen aurreikuspena jasoko da. Lehentasunezko jarduera kirol klub bateko emakumezkoen atalerako eskatzen denean, diru sarreraren eta gastuen aurreikuspenak bereizirik adieraziko ditu klubari dagokion aurreikuspenak eta kasuan kasuko emakumezkoen atalarenak direnak.

4. Artikulua. Ebazpena

Eskatutako baldintzak betetzen badira, Euskara, Kultura eta Kirol diputatuak egingo du jarduera lehentasunezkoztat jotzeko adierazpena.

Ebatzi baino lehen, txostena eskatuko dio Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari, eta, horretarako, espedientea bidaliko dio.